# ISEI - IVEI

## Rs1.2.6. CURRICULUM KONPETENTZIA LHko 4. MAILAN: GIZARTEA ETA HERRITARTASUNA.

**Edizioa: 2013ko abendua**
**© ISEI•IVEI-k argitaratua**

**ISEI•IVEI-K ARGITARATUA**
Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea
Asturias 9, 3.a - 48015 Bilbo
Tel.: 94 476 06 04 - Fax: 94 476 37 84
info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

**LAN TALDEA**
Araceli de Francisco
Mª Paz Martínez

**KOORDINATZAILEA**
Paz Martínez

**AHOLKULARITZA TEKNIKOA**

Eduardo Ubieta

**Sarrera** 4

**Rs1.2.6.1 taula eta grafikoa: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.** 6

**Rs1.2.6.2 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).** 7

**Rs1.2.6.3 taula eta grafikoak: LHko 4. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*gizarte errealitatea; herritartasuna; bizikidetza)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.** 8

**Rs1.2.6.4 taula: LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probaren hizkuntza.** 9

## GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN ESKURAPENARI BURUZKO DATUAK LEHEN HEZKUNTZAKO (LH) 4. MAILAKO IKASLEEN ARTEAN. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA 2010[1].

Adierazle honek Lehen Hezkuntzako (LH) 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* duten errendimendu-mailari buruzko informazioa ematen du. Emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2010ean gauzatu zen Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak dira. Ebaluazioan 250 puntuko batez bestekoa finkatu da, 50 puntuko desbiderapen tipikoa eta hiru errendimendu-maila.

Emaitzak zenbait aldagai kontuan izanik aztertu dira: ikasleen sexua, indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK), irakasmailarekiko egokitasuna (jaioturtea eta irakasmaila), irakastereduа[2], eta hezkuntza-sarea[3] (geruzak), gurasoen ikasketa mailarik altuena, jaiolekua eta etxeko hizkuntza eta probaren hizkuntza.

2010. urtean Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleen % 50,4 ikastetxe publikoetan zegoen, eta ikasleen % 49,6 itunpeko ikastetxeetan.

2010eko Ebaluazio Diagnostikoan *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* ikasleen banaketa errendimendu-mailen artean honako hau izan da, handienetik txikienera: erdi-mailan ikasleen % 51,7 egon da, maila aurreratuan, ikasleen % 30,4 eta hasierako mailan % 17,9. Maila aurreratuan nesken ehunekoa (% 33,9) mutilena (% 27,2) baino 6,7 puntu handiagoa izan da. Hasierako mailan mutilen ehunekoa (% 21,2) neskena (% 14,3) baino 6,9 puntu handiagoa izan da. Erdi-mailan nesken ehunekoa bakarrik da mutilena baino 0,2 puntu handiagoa.

Geruzetako batez besteko puntuazioak aztertzen baditugu, puntuaziorik altuena (275) itunpeko A ereduan izan dela ikus daiteke, eta gero D ereduan (255) eta B ereduan (254). Sare publikoaren barruan puntuaziorik altuena (244) D ereduan izan da, eta puntuaziorik apalena (239), B ereduan.

Nesken batez besteko puntuazio orokorra (256) mutilena (245) baino 11 puntu altuagoa izan da. Konpetentziaren hiru dimentsioei (*gizarte errealitatea; herritartasuna; bizikidetza*) dagokienez, neskek mutilek baino puntuazio altuagoak lortu dituzte dimentsio guztietan. *Gizarte errealitatean* eta *bizikidetzan* neskek mutilek baino 10 puntu gehiago lortu dituzte, eta *herritartasunean*, 6 puntu gehiago.

*Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* erdi-mailan eta maila aurreratuan ehuneko handiena duten ikasleen profila honako hau da: adinagatik dagokion irakasmailan dago (% 84,7), gurasoek goi mailako ikasketak dituzte (% 88,8), ISEK indize altua du (% 88,9) eta autoktonoa da (% 82,9). Erdi-maila eta maila aurreratua batera hartuta, etxeko hizkuntza euskara ez den kasuetan, proba gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoa (% 89,6) euskaraz egin duten ikasleena (%77,3) baino 12,3 puntu

[1] Informazio gehiagorako: Ebaluazio Diagnostikoa 2010. Txosten orokorra. http://www.isei-ivei.net/cast/pub/indexpub.htm
[2] EAEn hiru irakasteredu daude: A eredua (irakas-hizkuntza gaztelania), B eredua (irakas-hizkuntza euskara eta gaztelania) eta D eredua (irakas-hizkuntza euskara).
[3] EAEn bi hezkuntza-sare daude, publikoa eta itunpekoa, biak diru publikoarekin finantzatuak.

handiagoa izan da. Erdiko mailan eta maila aurreratuan ehuneko txikiena duten ikasleen profila hau da: irakasmailarik errepikatu du (% 52,1), gurasoek ez dituzte bukatu derrigorrezko ikasketak (% 65,5), etorkina da, (% 69,5), eta ISEK indize apala du (% 72,6).

## Rs1.2.6.1 taula eta grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, orokorra eta sexuaren arabera.**

| | | 2010 |
|---|---|---|
| HASIERA Errendimendu maila | Guztira | **17,9** |
| | Neskak | 14,3 |
| | Mutilak | 21,2 |
| ERDIA Errendimendu maila | Guztira | **51,7** |
| | Neskak | 51,8 |
| | Mutilak | 51,6 |
| AURRERATUA Errendimendu maila | Guztira | **30,4** |
| | Neskak | 33,9 |
| | Mutilak | 27,2 |




Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010.

## Rs1.2.6.2 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian* lortutako puntuazio zuzenak geruzaren arabera (hezkuntza-sarea eta irakasteredua).**

| | 2010 |
|---|---|
| A Publikoa | 240 |
| B Publikoa | 239 |
| D Publikoa | 244 |
| A Itunpekoa | 275 |
| B Itunpekoa | 254 |
| D Itunpekoa | 255 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010.

## Rs1.2.6.3 taula eta grafikoak:

**LHko 4. mailako ikasleek konpetentziaren dimentsioetan (*gizarte errealitatea; herritartasuna; bizikidetza)* lortutako puntuazio zuzenak, orokorrak eta sexuaren arabera.**

| | | 2010 |
|---|---|---|
| Guztira | Guztira | 250 |
| | Neskak | 256 |
| | Mutilak | 245 |
| *Gizarte-errealitatea* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 255 |
| | Mutilak | 245 |
| *Herritartasuna* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 253 |
| | Mutilak | 247 |
| *Bizikidetza* | Guztira | 250 |
| | Neskak | 255 |
| | Mutilak | 245 |







Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010.

## Rs1.2.6.4 taula:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probaren hizkuntza.**

| | | Ikasle % | Hasierako maila | Erdi-maila | Maila aurreratua |
|---|---|---|---|---|---|
| | | 2010 | | 2010 | |
| ISEK | Maila baxua | **16,0** | 27,4 | 51,7 | 20,9 |
| | Maila ertain baxua | **24,2** | 21,2 | 53,0 | 25,8 |
| | Maila ertain altua | **26,6** | 17,8 | 52,0 | 30,2 |
| | Maila altua | **33,2** | 11,1 | 50,5 | 38,4 |
| Egokitasuna | Adina bat dator ikasmailarekin | **91,6** | 15,3 | 52,3 | 32,4 |
| | Adina **EZ** dator bat ikasmailarekin | **8,4** | 47,9 | 44,7 | 7,4 |
| Titulartasuna | Publikoa | **50,1** | 20,9 | 53,9 | 25,2 |
| | Itunpekoa | **49,9** | 14,9 | 49,6 | 35,6 |
| Gurasoen ikasketa mailarik altuena | Derrigorrezko ikasketak bukatu **gabe** | **3,1** | 34,5 | 53,6 | 11,9 |
| | Derrigorrezko ikasketak | **12,7** | 28,7 | 53,2 | 18,1 |
| | Batxilergoa, HZ | **34,0** | 18,3 | 55,4 | 26,3 |
| | Goi mailako ikasketak | **41,2** | 11,2 | 48,0 | 40,8 |
| Jaioterria | Autoktonoa | **93,9** | 17,0 | 51,6 | 31,3 |
| | Emigratzailea | **6,1** | 30,6 | 52,5 | 17,0 |
| Familia-hizkuntza* euskara | Probaren hizkuntza euskara | **97,1** | 13,5 | 53,0 | 33,5 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | **2,9** | 17,4 | 42,8 | 39,9 |
| Familia-hizkuntza* euskara **EZ** | Probaren hizkuntza euskara | **69,9** | 22,7 | 54,0 | 23,3 |
| | Probaren hizkuntza gaztelania | **30,1** | 10,4 | 45,5 | 44,1 |

*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010.

## Rs1.2.6.4 grafikoa:

**LHko 4. mailako ikasleen ehunekoa *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hiru errendimendu-mailetako bakoitzean, aldagai hauen arabera: adin-egokitasuna irakasmailarekiko, ikasleen ISEK indize sozio-ekonomiko eta kulturala, geruzak, gurasoen ikasketa maila, jaiolekua, etxeko hizkuntza eta probaren hizkuntza.**




*2010. urtean, ikasle kopuru txiki batek ez zuen etxeko hizkuntzaren galdera erantzun.

Iturria: ISEI-IVEI. Ebaluazio Diagnostikoa 2010.